

AZTERKETAK | 40

2020ko MAIATZA

Benetako irteera bat

**ELAren
PROPOSAMEN
POLITIKOA**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Krisiarentzako irtenbide baten alde: paradigma nagusia zalantzan jarri eta errotik eraldatu

0. Sarrera	3
1. Krisiaren markoa.....	3
1.1 Bigarren Mundu Gerra eta politika keynesiarrak	5
1.2 Sistemaren finantziarizazioa edo kapitalismo finantzarioa	5
1.3 2008ko krisia eta erantzuna	6
1.4 Covid-19aren aurreko egoera.....	6
2. Covid-19a.....	8
2.1 Covid-19aren ondorioak ekonomian.....	8
2.2 Hartutako erabakiak.....	8
2.3 EB baitako neurriak	9
2.4 Zer esan nahi dute neurriok?	10
2.5 Gobernuak hartzen ari diren erabakiak	10
3. Ondorioak eta alternatibak	12
3.1 2008ko krisi ondoren ezarritako austeritate politikak baztertu	12
3.2 Biziaren sostengua eta zaintza erdigunean kokatu	13
3.3 Zerbitzu publikoei eta komuna denari balioa eman; honetarako sarrera publikoak gehitu behar dira.....	13
3.4 Globalizazio eta internazionalizazioari aurre egin eta ekonomia bertokiratu. Soberania ekonomiko eta sozialean aurrera egin	14
3.5 Pertsonen eskubideak lehenetsi, ez kapitalarenak.....	16
3.6 Lanari bere duintasuna aitortu, batik bat sektore prekarizatu eta feminizatuetan.....	16
3.7 Mobilizazio soziala eta soberania sozialerako alternatibak bultzatu	17

0. SARRERA

Txosten honen asmo nagusia da egungo krisi sistemikoari ematen zaion irtenbidea biztanle gehien beharizanen arabera izan dadin, eta ez daitezen berriz aplikatu 2008ko krisi osteko politikak.

Covid-19ak eragindako mundu mailako krisia historian sekula ezagutu gabeko astindua izan da. Ekonomia eta berau kokatzen deneko sistema kapitalista aurretik ere krisian zegoen (ekonomikoa, soziala, ekologikoa, humanitarioa, patriarkala...). Koronabirusa eta bere hedapena detonagailua izan da, baina ez krisiaren zergatia; haatik, agerikoa da pandemiak osasunean izan duen eragin larria, orain arte aplikatutako neurri gogorak (konfinamendua, enpresa itxiera, etab.), baita sortu den noraeza ere, enpleguan, gizarte ongizatean eta ekonomian ondorio handiak izaten ari direla. Hasieratik hartzen diren neurrien baitakoa izango da krisiari emango zaion irtenbidea. Horregatik, langile klaseak eta gizarte osoak argi izan behar dute orientazio hori baldintzatuko badute epe labur, ertain eta luzera begiratu beharra dagoela.

Naomi Kleinek La doctrina del shock liburuan azaltzen zuenez, botere ekonomikoak baliatu egin izan ditu era desberdinetako shock-ak -hondamendi naturalak, gerrak, krisiak edo estatu-kolpeak- jendearen gustoko ez diren erreformak aplikatzeko, bestelako egoera batean biztanleek onartuko ez zituzketen erreformak. Koronabirusaren krisia da Kleinek aipatutako egoera horietako bat. Pandemiak psikologia sozialean kaosa eta zalantza eragin ditu; piztu den beldurra medio, shock egoeretan gertatu ohi den bezala, biztanleekitsu-itsuan jarraitzen diote arerio komun horren kontrako borroka gidatzen duenari. Kontziente izan behar dugu koronabirusa gorabehera baditugula sakrifikatu ezinako eskubide eta askatasun demokratiko, banako eta kolektiboak, eta hauen alde borrokatu beharko garela.

Horregatik, jendeak prest egon behar du egungo egoerak eragindako shockean errepika ez dadin 2008ko krisian gertatu zena: Troikak ezarri zuen austeritatea, hamarraldi batez langile klasea zigortu zuena, eta pribatizazioak eta murrizketak arlo publikoan, esaterako osasun publiko sisteman.

Dokumentua hiru zatitan banatu dugu: Lehenengoan krisiaren markoa aztertzen dugu (sistema kapitalista globalaren dinamika azalduz, 2008ko krisiaren ondoren gertatu zena eta koronabirusaren aurretik nola geunden); bigarrenean analizatzen dugu Covid-19aren krisiari ematen ari zaion erantzuna, 2008ko finantza leherketa osteko norabide berean ote goazen edo ez erabakitzeke; hirugarrenean esandako guztiaren buruz ondorioak aterako ditugu, eta marrazten dugu zein izan beharko litzatekeen modua irtenbide sozial, ekologiko, feminista eta demokratiko bat emateko.

1. KRISIAREN MARKOA


Metatze kapitalistaren dinamikak kapitala pilatzera darama. Hau da, kapitalista handiek dirua inbertitzen dute etekin bat lortzeko (irabazi asmoz). Datuen analisi zehatza egiteko zailtasuna handia izanagatik ere, adostasuna orokorra da: etekin tasa gainbehera zetorren, batik batik ekonomia produktiboan. Testuinguru honetan etekin ahalik handiena bilatu nahian kapitala gero eta esku gutxiagotan bildu da (erosketa edo fusio prozesuak, kapital funts handien protagonismo gero eta handiagoa...) eta ekonomiaren finantziarizazio prozesua gertatu da; hau hurrengo atalean aztertuko dugu.

Oro har adostasuna dago ere krisien ostean (esaterako, 29ko crack-a, Bigarren Mundu Gerra, 80etan neoliberalismoaren hedapena edota 2008ko krisia) irabazi-tasaren igoera gertatu dela.

Halaber, analisi ezberdinek erakusten dute 80etako hamarralditik hona gertatu denak irabazi mailari eusteko aukera ematen duela (aurreko aldietan baino maila apalagoan bada ere).

Adibidez, grafikoan ikus dezakegu herrialde nagusietako irabazi-tasaren batez besteko bilakaera Maitoren arabera.

Etekin tasaren bilakaera historikoa



Noski, bilakaera honekin batera posible da errentaren banaketa gero eta desberdinagoa izatea, lan errenten kalterako. Horra zer gertatu zen Europar Batasunean edo Euskal Herrian: BPGaren banaketan soldata-errenten zatia asko jausi da.

BPGarekiko lanaren ordainsarien eta enpresa-soberakin gordinaren banaketa EAEn, (1985-2017)

	1985	2009	2012	2017
Soldatapekoen ordainsariak (%)	%55,50	%50,29	%49,18	%47,39
Enpresa-soberakin gordina (%)	%37,84	%40,48	%41,71	%42,21

Iturria: EUSTAT

BPGarekiko lanaren ordainsarien eta enpresa-soberakin gordinaren banaketa Nafarroan, (2000-2017)

	2000	2009	2012	2017
Soldatapekoen ordainsariak (%)	47,00%	45,75%	42,85%	41,96%
Enpresa-soberakin gordina (%)	43,03%	46,07%	48,17%	47,72%

Iturria: NASTAT

Ondoren aztertuko dira erakundeek zer erantzun eman izan dioten egungo egoeraren modukoak gertatu direnean. Batetik, Bigarren Mundu Gerra osteko garaia eta neurri keynesiarren aplikazioa; bestetik, 2008ko krisia, zabalkuntza kuantitatiboa eta austeritatearen araua.

1.1 Bigarren Mundu Gerra eta politika keynesiarrak

Pasa den martxoan Angela Merkelek hau esan zuen: "Bigarren Mundu Gerratik hona gure herrialdeak ez du halako erronkarik izan zeinak gure ekintza bateratu eta solidarioa eskatzen duen". Bi fenomenoak alderatzea ez litzateke egokia, baina gaur ezartzen ari diren politika ekonomikoek Bigarren Mundu Gerra osteko eta politika keynesiarren garaira itzultzen gaituzte.

Politika keynesiarraren logika da Estatuak esku hartu behar duela krisiari aurre egiteko. Politika ekonomiko honen bidez eskaria pizten da, hots, Estatuak gastu publikoa gehitzen du familiei baliabideak emanez, kontsumitzen jarrai dezaten. Honela, ekonomia izoztuta dagoen artean, gobernuak saiatzeko beren politika ekonomikoaren bitartez arlo pribatua ordezkatzeko, produkzioa bere onera lehenbailehen itzuli eta enplegua berreskuratze aldera.

Politika keynesiarren eraginaren adibidea izan zen Marshall Plana, Estatu Batuek 1948 eta 1952 bitartean garatu zuena, Europa gerra ondoren berreraiki eta birgaitzeko; ia 12.000 milioi dolarreko laguntza bideratu zen. Britainia Handia, Frantzia edota Alemania federaleko produkzio sarearen berreraikuntzak AEBetako enpresei aukera eman zien esportazioak gehitzeko; bide batez, Europar komunismoaren hedapena geldiarazi zuten. Ez zen, inola ere, laguntza desinteresatua izan: AEBek hegemonia bilatzen zuten, mundu mailako potentzia nagusi bilakatzea alegia.

Politika keynesiarrek ekarri zuten "kapitalismoaren urrezko aldia"; ekonomia etenik gabe hazi zen eta Ongizate Estatua sortu zen, zeinetan estatuak zuen rol nagusia jarduera ekonomikoan eta baldintzatu egiten zituen enplegua, inbertsioa edota zerga-politika aktiboa; honela sistema kapitalista berregitea ziurtatzen zen. Sarri ahaztu egiten da, modu interesatuan, gastu publikoaren hazkundera nola finantzatu zen: Horretarako erabili ziren zor publikoaren kondonazioa edo zerga-politika oso progresiboa (esaterako, errenta zergan %90eko tasa marjinalak edota %50etik gorako aberastasunaren gaineko zergak, urteko batez besteko soldataren gaintetik dauden balioen kasuan). Aro hau bukatu zen 1973ko petrolioaren krisiarekin, zeinak zalantzan jarri zuen Estatuaren esku hartzea.

1.2 Sistemaren finantziarizazioa edo kapitalismo finantzarioa

80etako hamarraldian kapitalismoak aro berri bati ekin zion. Ongizate estatua eraitsi ahala gastu publikoa murriztu egin zen, pribatizazioak, langile klasearen eskubideen galera, etab. Hau da, neoliberalismoa hedatu zen. Garai berri honetan kapitalismo finantzarioaren unea hasi zen; finantziarizazioa gertatzen ari zen.

Neoliberalismoa eta finantzen desarautzearekin batera Kapital Handiak abagunea baliatu zuen etekina lortzeko. Produkzioaren errentagarritasunari urriegia iritzita, finantza jarduerak hartatik beste hasi ziren garatzen. Baina horrek ez du esan nahi produkzioa erabat baztertu zutenik; gertatu zena izan zen inbertsioak areago bideratu zituztela finantza eremura. Kapitalismo finantzarioaren helburua ere etekin monetarioa da, eta horretarako finantza merkatuan espekulazioan jarduten da. Eremu honetan inbertitzen den kapitalari "fikziozko kapital" deitzen zaio: soilik finantzen munduan erabiltzen da, produkzioarekiko benetako loturarik gabe. Ekintza honi jabeak dibidendua ateratzea espero du.

1.3 2008ko krisia eta erantzuna

Finantziarizazioa indarrean zela 2008ko krisia hasi zen; higiezin merkatuko burbuila lehertu eta subprime hipoteken krisia gertatu zen. 2008ko krisia finantza merkatuan sortu zen, eta berari aurre egiteko banku zentralak Zabalkuntza Kuantitatiboa (ingelesez "Quantitative Easing") izeneko estrategia erabili zuten.

Zabalkuntza Kuantitatiboa banku zentralak erabiltzen duten diru-politikako tresna bat da: diru eskaintza gehitzen da aktibo finantzarioak erosiz (bonuak, altxor-letrak, zorra, etab.). Hau da, ekonomian dirua injektatzen da; dirua sortu egiten da. Helburua omen da dirua familia eta enpresenganaino iristea.

Europako Banku Zentralaren kasuan dirua injektatzen da banku eta inbertsio-funtsen bitartez. EBZk erakunde hauei aurrez bazegoen zor pribatua (korporatiboa) zein publikoa (soberanoa) erosten die; beraz, benetan likidezia ematen die bankuei, baina ez dago bat ere argi diru hori familia eta enpresei iristen zaienik. Hots, EBZk dirutza hori banatzeko monopolioa bankuen eta enpresa handien esku uzten du, eta hauek erabakitzen dute Estatuari maileguak eman ala ez, edo zeintzuk, zein baldintzatan eta zenbateko interes tasarekin. Areago, mailegurik ez ematea ere gerta liteke, eta asmo bakarra inbertsio espekulatiboa izatea.

Prozedura hau Europar Batasunaren Ituneko 123.1 artikuluan (lehenago 101.1 zena) dago araututa (ELAk Itunaren erreferendumean ezezko botoaren alde egin zuen, eskubide laboral, sozial eta nazionalak errepetatzen ez zituelako eta Europa-gotorlekua irmotzen zuelako, demokratikoki gero eta gutxiago duena). Artikulu hark debekatzen duen Banku Zentralak zorpekorik baimentzea edota erakunde publikoei maileguak ematea. EBZk berak diru hori zuzenean gobernuen esku jarriko balu defizit publikoetan eragin txikiagoa litzateke, eta gainera ziurragoa litzateke diru hori iritsi behar duen lekuetara iristea.

Banku zentralen helburu nagusia, zabalkunde politika hauekin, ez da benetan eurek argudiatzen dutena; aitzitik, bankuak salbatu nahi dituzte, finantza-merkatuak baretu eta enpresei likidezia eman. Horrekin batera garatu dira interes tasen jaitziera politika eta finantza erakundeei diru kopuru izugarriak epe laburrerako mailegatzea.

EBZaren estrategia 2008tik hona izan da orain arte deskribatu duguna; azkeneko urteetan etengabe likidezia sartu du. Batetik, interes tasak jaitsi ditu (negatiboak izateraino), eta bestetik, bonu erosketak handiak. Hasieran Banku Zentralaren esku-hartzea 2008ko krisiari aurre egiteko salbuespenezko tresna zen, baina arau orokor bilakatu da, burtsetako beheraldiak bideratzeko. Koronabirusaren krisia etorri da agertoki batean non politika horiek mugaraino garatu diren; ondorioz, orientazio okerra hartu izanaz gainera eragiteko gaitasuna gero eta murriztagoa da.

1.4 Covid-19aren aurreko egoera

ELAK azken urteetan doikuntza politiken ondorioak salatu izan ditu: Eskubide laboral eta sozialen murrizketak; gizarte-babesaren defizita eta aurrekontuetan osasungintza, hezkuntza, etxebizitza eta beste arlo batzutan egindako murrizketek; edo zerga-politika errenta altuenen, enpresen eta kapitalaren zerbitzura jarri izanak desberdintasun sozialen eta pobrezia-eraren gorakada handia eragin du, baita hazkunde ekonomiko garaian ere.

Gainera, aipatu den moduan, dirutza injektatuagatik ere, hau ez da ekonomia errealerara iritsi, sosak jaso zituztenek ez baitituzte ekonomia produktiboan inbertitu. Bankuek eta akziodun handiek nahiago izan dute finantza eremuan inbertitu eta balio finantzarioekin espekulatu; horrela burtsa-merkatuan burbuila espekulatibo bat sortu da.

Ondorioz, finantza eremua hazi eta hazi egin da, lehenago iritsi ez zen lekuetaraino iritsiz; horrek muturreko finantziarizazioa eragin du. Soberako likideziaren ondorioz edozer bihurtu da espekulaziora. Gainera, aktibo finantzarioak, bonu eta titulu publiko zein pribatuak artifizialki puztu dira; kasu batzutan balioak maximoetara iritsi dira. Hala ere, aktibo finantzarioen balioa gehitu arren, inbertitzaileen irabazi itxaropena gero eta txikiagoa da.

Parametro ekonomiko klasikoek dagokienez, aditzen zen joera areagotu egin da. Kapitalismoaren dinamikak berak, krisi finantzarioaren emaitzak eta azken urteetan hartutako erabakiek honako ondorioak izan dituzte:

- Produkzio materialaren etekin tasak urritu egin dira. Beraz, abagune honetan inbertitzaileek ez dute aurkitzen merkatu aukera berririk eremu produktiboan etekinak lortzeko edota kapitala ugaltzeko. Etekin itxaropenik gabe, kapital handiak ez du ekonomia produktiboan inbertitzen; ondorioz, sistemaren gorpila gelditu egiten da.
- Zeharo hazi da zorpetze maila, hala gobernuena nola enpresena.
- 2018tik hona Txina eta AEBen artean gertatzen ari den gerra komertzialak nazioarteko merkataritza harremanak murriztu ditu.
- Produktibitate tasa geldituta dago.
- Produkzio erreala ez da hazten.
- Soldaten debaluazioa; honek eskaria uzurtzea ekarri du.

Horrenbestez, Covid-19a ez da pairatzen ari garen krisi ekonomikoaren zergati nagusia; leherraziduen txinparta izan da benetan, testuinguru batean non ekonomia produktiboa oso motelduta zegoen. Ekonomia finantzarioak ere 2018an eta 2019an astindu handiak hartu zituen. Ekonomia gero eta nekezago suspertzen zen, eta izarriak ustekabeen harrapatu du, honi aurre egiteko baliabide egokirik gabe.

Honi erantsi behar zaio erabakiak hartzen direla herritarren eguneroko bizitik gero eta urrunago dauden guneetan; estrategia hau hautatu da bermatzeko erabakiak kapitalaren interesen zerbitzura jarriko direla eta presio zein mobilizazio soziala eragozteko.

Soberania galera gertatu da hala enpresen eremuan (esaterako, transnazionalak) zein gobernuen arloan; hauek halako erabakigune berriak sortu izan dituzte, esaterako Europar Batasuna edo belaunaldi berriko Merkataritza Itunaren ingurukoak. Erabakiguneen urruntzea ez da soilik fisiko (Brusela, Geneva edo beste nonbait hartzen dira erabakiak); aitzitik, politikak justifikatzeko esaten da irizpide teknikoak hartzen dituztela oinarritzat. Hau da, diskurtso bakarra ezarri nahi

da, ustezko demokrazia teknokratikoa, non erabaki zuzenak "adituen" eta negozioetako jendearen eskuetan uzten diren, zeintzuk bitarteko oro baliatzeko prest dauden kapitalaren interesak leheneste aldera.

2. COVID-19A

2.1 Covid-19aren ondorioak ekonomian

Ekonomia gaixorik zegoen koronabirusa hedatzen hasi orduko. Haatik, pandemiak eragin duen shock-ak munduko ekonomia ataka larrian jarri du. Potentzia nagusiak, batzuk areago eta besteak ez hainbeste, jota daude eta osasun emergentzia honen ondorio guztiak oraindik ez ditugu ikusi. Egoera honek eragin zuzena du ekonomia produktiboan.

Osasun larrialdiari aurre egiteko hartu diren erabakiak -konfinamendua edo oinarritzakoak ez diren sektoreetako jarduera etenaldia- ekonomia izoztu eta eskaria zein eskaintzari eragin diote. Domino efektua orokorra izan da; langile klasea, zeina kontsumitzailea ere baden, etxean geratu behar izan da; enpresek jarduera murriztu edo eten egin behar izan dute, eta kaleratze kopurua edo ERTEen eraginak izugarri hazi dira.

Lehengo hiruhilekoan BPGa %3 jaitsi da EAEn eta %4,1 Nafarroan. Bigarren hiruhilekoko datuek okerragoa den bilakaera argi adieraziko dute. Aurreikuspenak berrikusten ari dira; adibidez, Ceperde zentroak uste du Hego Euskal Herrian BPGaren beheraldia aurtan %6 eta %8 bitartekoa izango dela, eta 2021ean erdia edo berreskuratuko dela. Zentro honen arabera langabezia tasa 6 edo 7 puntu gehituko da. Egunak eta asteak igaro ahala aurreikuspen horiek eguneratzen joango dira, baina, itxura guztien arabera, bilakaera ez da inola ere hobea izango.

Ekonomia errealean ez ezik, Covid-19ak kalte larriak eragin ditu finantza merkatuetan ere. Ikusi dugunez, burtsetan jaitsiera handiak gertatu ziren aurreko urteetan, baina produkzioaren eta kontsumoaren atzeraldiak, eta egoerak dakarren zalantzak, martxoan hainbat egun beltz ekarri ditu, zeintzutan burtsak eroraldiak jasan dituzten.

2.2 Hartutako erabakiak

Abagune honetan erakundeek premiazko neurriak hartu dituzte koronabirusaren osasun krisiari aurre egiteko. Lehena, gastu publikoa gehitzea osasun sistemei baliabide gehiago emateko. Baina dokumentu honetan aztertuko ditugu krisiaren eragin ekonomiko eta sozialak arindu nahi dituzten neurriak, ea benetan eragingarriak diren. Halaber, erabaki nahi dugu neurrien orientazioa berria ote den edota, aitzitik, 2008koen ildo beretik ote doazen.

Pandemiak eragindako krisiak Banku Zentral handiak behartu ditu salbuespenezko erabakiak hartzera. Ordea, salbuespenezkoak zenbatekoak dira, izan ere, orain arte zeudenen tankera berekoak baitira. AEBetako Erreserba Federalak (FED) interesa tasa %1etik %0ra jaitsi du, eta gainera 700.000 milioi dolar injektatu ditu bonu publiko eta pribatuak erosita. Europako Banku Zentralak (EBZ), berriz, martxoan iragarri zuen Emergentzia Pandemikorako Erosketa Programa; honek aurtan 750.000 milioi euro (aurrez beste 120.000 milioi ere bideratuak ziren) jarriko ditu bankuen eta enpresa handien esku. Halaber, bankuentzako likidezia mekanismoak ere paratuko ditu: 3 bilioi euro arte mailegatuko dizkie interes tasa negatiboarekin (-%0,75). 2008an bezalaxe, ematen den argudioa da diru hori jendeari eta enpresei helaraziko zaiela. Apirilean eta maiatzan erabaki horiek gauzatzen ari da.

Egungo egoeran gobernuak finantziatu beharra daukate pandemiari aurre egiteko politika publikoak garatuko badituzte. Baina Europar Batasunean, aipatu denez, EBZk ezin ditu erakundeak zuzenean finantzatu. Beste Banku Zentralek autonomia handiagoa dute EBZk baino, baina egia da haien diru-politikaren xede nagusia finantza merkatuak direla ere. Esaterako, FEDek 200.000 milioi dolarreko epe laburreko zorra erosiko die estatuei eta udal handiei, zeintzuk ez duten bankuen bitartekaritzarik behar izango. Ingalaterrako Bankuak eta Britainia Handiko gobernuak ere hitzartu dute honen zorpekoa mugarik gabe haz daitekeela (hau da, gobernuaren esku jarri dute eskatzen duen diru guztia: Hitz gutxitan, dirua inprimitzeko makina martxan jarri dute erakundeen zerbitzurako).

2.3 EB baitako neurriak

Martxoaren 23an Ogasun ministroek Europar Batzordearekin hitzartu zuten EBko aurrekontu-egiturari buruzko ihes klausula aktibatzea. Agerikoa da krisiak estatu guztietan gastua gehitu eta diru-bilketa jaistea eragingo duela, eta beraz ezinezkoa izango dela betetzea ekitaldi honetarako egindako defizit, zor eta gastu-arauari buruzko aurreikuspenak. Haatik, hau unean uneko neurri bat da, aldi baterakoa, eta erabaki zenean nabarmendu zen ere 2021etik aurrera arkitektura hori guztia aintzat hartu behar dela; hau izan zen, hain zuzen, 2008ko finantza krisi ostean ezarri ziren aurrekontu murrizketen oinarria.

Bestalde, hainbat egunez negoziatu ondoren, EBren etorkizuna airean zegoela zirudienean, finantza ministroek apirilaren 9an akordio bat iritsi zuten Batasunak Covid-19aren krisiari aurre egiteko bultzatuko dituen finantziario mekanismoei buruz. Oraingoan ere, 2008ko beheraldi handian eta ondorengo urteetan bezalaxe, ipar eta hegoaren arteko zatiketa agerian geratu da; Italia buru zuen taldeak proposatutako alternatibak gorabehera, hitzartu diren programak, nolabaiteko malgutasunez bada ere, EBren Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren ildotik doaz. Hau da, aurretik dirua, baina baldintzatua, jarraian ikusiko dugunez.

Estatuek adostutako neurriak hiru mailegu-programa konkretu dira (oraingoz ez da ekarpen ekonomikoa zehatzik onartu; gauza bakarra esan da, Batasunaren aurrekontua berrantolatua beharra dagoela, partida batzutatik dirua kendu eta Covid-19ari eman beharreko erantzunean baliatzeko).

Apirilaren 9an Krisi Pandemikoaren Babeserako kreditu-lerroa sortzea erabaki zuten; honen oinarria, Egonkortasun Mekanismo Europarraren (MEDE) irizpideak. EBZaren politikak ez bezala, mekanismo honek eskatzen duten herrialdeak zuzenean finantziatzeko aukera emango du, BP-Garen %2ko mugarekin; Italiaren eta Espainiaren kasuan, 36.000 eta 25.000 milioi euro, hurrenez hurren. Hots, bide honetatik espainiar Estatuak gehienez 25.000 milioiko kredituak lortzeko aukera izango luke.

MEDEa ez da tresna berria. Esaterako, aurreko krisian Greziaren erreskatea eta Espainiaren finantza erreskatea gauzatzeko baliatu zen. Finantziario lerro hau ez da baldintzarik gabeko laguntza bat, izan ere kreditu baten truke herrialdeek austeritate baldintza zorrotzak eta EBren finantza kontrola pairatu behar baitituzte.

Kreditu-lerro hau MEDEaren baldintzapean eman behar den ala ez aurre jarri ditu iparraldeko eta hegoaldeko blokeak, Herbehereak eta Italia buru zirela. Lehenek nahi zuten epe laburrean baldintzarik gabeko kreditua eman, baina gero epe ertain eta luzera doikuntza eta murrizketa politika ezartzea. Bigarrenek goitik behera ukatu dute erreskate baten moduko irtenbidea.

Azkenik, hitzartu da MEDEaren laguntza izateko baldintzak ezarriko direla. Lehenik, kreditu-lerro hau baliatuko da koronabirusak eragindako zuzeneko edo zeharkako osasun kostuak finantzatzeko. Kreditu-lerroa aldi baterako da (Covid-19aren krisia amaitu arte; ez dago argi honek zer esan nahi duen). Aurrerago kreditu horrekin jarraituz gero, edo beste edozein laguntza jasotzekotan,

adibidez finantza erreskate bat, ondorioa doikuntza eta murrizketa programa bat litzateke. Bigarrenik, MEDEaren laguntza eskatzen duten herrialdeek, behin krisia igarota, EBko koordinazio eta zaintza ekonomiko eta fiskala aintzat hartu behar izango dute, besteak beste Egonkortasun eta Hazkunde Ituna.

Gainera, Europar Kontseiluak laguntza ekonomikoa lortzeko baldintzak aldatzeko bitartekoak bere esku ditu, herrialde eskatzaileek zorra murrizteko helburuak beteko ez balituzte. Esaterako, 472/2013 erregelamenduaren 7. artikulua, zeinaren arabera Kontseiluak baldintzak zorrotz dituzakeen gehiengo kualifikatuaren babesarekin; hots, nahikoa litzateke herrialdeen botoen %55a. Behin osasun krisia gaindituta, erreskatatutako herrialdeek jasotako dirua itzuli beharko dute, eta gainean izango dute Troikaren etengabeko zaintza.

Bigarren programa dira Europako Inbertsioen Bankuko (BEI) Kreditu-Lerroak. Honetarako sortuko da 25.000 milioi euroko berme-funts bat; bere sustatzaileen arabera, honekin europar ETEentzako abalak bermatuko lirategi, 200.000 milioi euro bitarte. Oraindik ez dago zehaztuta.

Hirugarren programa, hau ere zehazgabea, SURE izenekoa da: 100.000 milioi euro arteko maileguak eman diezaizkieke eskatzen duten herrialdeei, langileak eta enplegua babesteko mekanismoen kostuak finantzatzeko (esaterako, Espainiako ERTEak), edota osasunaren inguruko neurriak ordaintzeko.

Mailegu programa hauek guztiok eskatzaileen zorra haztea eragingo dute. Zorra ordaindu beharrekoa izango da, gainera EBko aurrekontu- eta finantza-egonkortasun irizpideen baitan.

Epe ertain eta luzera begira Frantziak eta Espainiak proposatu dute krisiaren irteerako presuntakuntza eta babeserako berreskurapen funts bat sortzea. Alabaina, funts hau, bitarteko irtenbidea litzatekeena, estatu- eta gobernu-buruen hurrengo bileran definitzekotan geratu dira. Orain arte adostutakoa funts horren beharera mugatzen da, baina ez da kopurua zehaztu, ezta gobernuen kreditu berriak emateko izango den edo funtsen ekarpen zuzena ekarriko duen ere.

Aldiz, akordiotik kanpo utzi dituzte "koronabonuak". Hauen xedea izango zatekeen zorra herrialde guztiek batera jaulkitzea, banaka eginez gero -batik bat hegoaldekoek- luketen arriskua saiheste aldera. Iparraldeko blokeak ezezko biribilarekin erantzun dio proposamen honi, batez ere Herbehereek eta Alemaniak. Frantziak eta Espainiak, hasieran koronabonuen defentsan Italiaren aldean bazeuden ere, azkenean goian aipatutako berreskurapenerako funtsaren alde agertu dira.

Ikusten denez, Espainiako estatuan egindako propaganda instituzionala gorabehera, Europako politikek benetako aldaketarik ekarri gabe jarraitzen dute.

2.4 Zer esan nahi dute neurriok?

Apirilaren 9ko finantza ministroen kontseilua txalo artean amaitu zen; bazirudien, beraz, herrialde guztien onerako erabakia hartu zela. Haatik, akordio honek ondorio larriak ekar ditzake herrialde batzuentzat eta datorren hamarraldirako aurrekontu-politika hipotekapean jar dezake.

Izan ere, MEDEren moduko programak, hasieran baldintzak hain gogorrak ez badira ere, behin osasun larrialdia igarota eskatu duten herrialdeak kontrolpean jartzea eragingo du, baita EBko Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna betetzeko doikuntzak ezartzea ere. Lehenago Grezia, Irlanda, Portugal, Zipre eta Espainiari gertatu izan zaien legez, austeritate neurriak hartu beharko dituzte hartutako zorrak kitatu ahal izateko.

Gainera, horren ondorioz herrialdeei aurrekontu-politika garatzeko ahalmena kentzen zaie. Austeritate neurriek esan nahi dute estatu kideek gastu publikoa mugatu behar dutela, baita diru-bilke-

ta handia den urteetan ere. Honela gastu-arauaren ildoko politikari eustea dakar.

2.5 Gobernuak hartzen ari diren erabakiak

Ikusi dugunez, Europar hartzen ari diren erabakiek bere herrialde kideen etorkizuna baldintzatuko dute. Ez da harrizkoa Covid-19aren krisiak babesteko ezkuturik gabe harrapatu izana. Gobernuak ezkutu horiek presaka sortzeko ahaleginetan ari dira aurrekontu-politiken bidez.

Argi geratu da oparoaldietan merkatua dela nagusi eta berak agintzen duela zein den jarraitu beharreko bidea, baina ekonomia uzkuertzen denean liberalik liberalenek ere estatuaren esku hartzearen aldeko jarrera hartzen dute. Covid-19aren krisiak erakuslehoan jarri du berriro keynesiar errezeta-liburu zaharra, eta askok eskatu diote Europari Marshall plan berri bat, besteak beste Pedro Sanchezek. Hala ere, lehenago ikusi dugun bezala, plan horiek, ezagutzen ditugun bezala, ez doaz norabide egokian, eta ez dira desinteresatuak.

Lehen neurriak osasun krisiari aurre egiteko hartu dira. Herrialde bat ere ez zegoen honelako egoera bati aurre egiteko prest, baina egia da ere azken urteetan osasun sistemari egin zaion mozketak sistematiakoaren ondorioz erantzuna motelagoa izan dela. Agerian geratu den beste puntua, Europaren menpekotasuna Asiako herrialdeekiko, material eta produktu medikuetan. Pandemiak erakutsi du sistema kapitalista kolapsatuz gero biziraupena bermatzen duen sektoreak osasungintza, zaintza eta elikagaiena direla, hain zuzen sektore biziki prekarioak.

Osasun krisiari emandako erantzunaren ondoren, gobernuen politiken ardatza izan da egoera honek jarduera ekonomikoan ahalik eragin txikiena izan dezan eta enplegu gutxien suntsi dezan saiartzea. Horretarako, enpresen etorkizuna eta eta likidezia bermatzeko, gobernuak abal publikoak eskaintzeko lerroak aktibatu dituzte. Gainera, zergak ordaintzeko atzerapenak onartu dituzte eta ETEentzako kredituak gehitu. Hau da espainiar Estatuko eta Euskal Herriko erakundeetan lan-ildo nagusia, eta aurreko orientazioarekiko ez dago inolako aldaketarik.

Gainera, azkenean finantza-sektorea da enpresei emandako abalei onura ateratzen diona; izan ere, altxor publikoaren kontura enpresei saltzen dizkien kredituen kobrantza ziurtatzen da.

Delako ezkutu sozialari dagokionez (enpleguaren babesa, gizarte-prestazioak eta eskubide sozialen bermea, esaterako etxebizitza, elikagariak edo oinarritzko hornigaiak), hartzen ari diren neurriek erantzun positiboa ematen dute, baina oso mugatua eta soilik epe laburrerako. Gainera, krisiari irtenbide justua ematea galdegiten duen presio sozialari esker iritsi dira.

Ezin ahaztu, bestalde, patronalek gobernuen laguntzaz irabazi duten protagonismoa: oinarritzkoak ez diren jardueren etenaldiaren aurka agertu dira eta presioa eragin diete gobernuak jarduera ekonomikoa sektore horietan bertan behera geldi ez zedin. Jarduera ekonomikoa lehenes-teak osasun krisia luzatzea ekarriko du; lehenago ikusi ahal izan dugunez, Covid-19ak ekonomian izan ditzakeen eraginak osasun alertaren arabera izango dira. Hau ez da, gure iritziz, posizio egokia, batetik langile askoren osasuna arriskuan jartzen duelako, eta bestetik, jarduera ekonomikoa normaltasunera itzultzeko aukera atzeratu egingo duelako, beste berragertze berriak ahalbidetuz.

Horri bi kontu gehitu beharko genizkioke, Espainiako estatuko gobernuak alarma-adierazpenaz egiten ari den aprobetxamenduari buruz erne jarri behar gaituztenak. Alde batetik, eskumenak birzentralizatzeko prozesuan aurrera egiten ari da (osasun arloan, polizia arloan, enplegu politikan). Beste aldetik, salatu beharra dago botere politikoak arriskua edo tentazioa izan dezakeela konfinamendua eta mailakako normalizazioa profitatzeko mobilizazio soziala eragozteko eta jendartearen kontrola areagotzeko.

Bestalde, adi egon beharko genuke, izan ere, Gobernu espainiarra alarma egoera baliatzen ari baita bi arlotan: Batetik, eskuduntzak berzentralizatzeko prozesuan aurrera egiteko (osasun, polizia, enplegu-politiken arloetan...). Bestetik, ohartarazi beharra dago botere politikoak tentaldia izan dezakeela konfinamendua luzatu eta mailakako normalizazioa profitatzeko mobilizazio soziala eragotzi eta jendartearen gaineko kontrola areagotze aldera.

Beraz, ondoriozta daiteke oro har politika ekonomikoak (diru, aurrekontu eta zergei buruzkoak) batik bat enpresen zailtasunak konpontzeko ari direla erabakitzen, ez hainbeste gizarte-prestazioei begira. Ohiz kanpoko aurrekontu gehienak kreditu-lerroak eta likidezia lortzeko abalak hornitzeko dira.

Politika hauek guztiek defizit publikoa zeharo puztuko dute. Noiz, eta zorpetze maila oso handia den abagune honetan. 2019 amaieran mundu mailako zorra 253 bilioi dolarrekoa zen, hau da, munduko BPGaren %322. Arlo publikoari dagokionez, herrialde batzuk zor publiko izugarria dute, batez ere Europa hegoaldean, eta hauentzat oso zaila gertatuko da ekonomia pizteko politikak finantzatzea. Adibidez, Espainiako zor publikoa 2019 bukaeran BPGaren %95,5ekoa zen. Covid-19aren krisiak zor hori %100dik oso gora haztea ekarriko du.

Une honek berebiziko garrantzia du. Jokoa dago zer nolakoak izango diren koronabirusak katalizatu duen krisiari irtenbidea emateko oinarri ekonomiko eta sozialak. Eta hau izango da alarma egoerak konfinatuta gaizkara, herritar mobilizazioa zeharo mugatzen duen krisiari aterabide soziala emateko presio modu gisa.

Esan liteke aukera aparta dugula paradigma aldatzeko, erdigunetik kapitala alboratu eta bizia kokatzeko. Haatik, hartzen ari diren erabakiek ez dute eredu aldaketarik ekarriko; aitzitik, duela hamar urteko hutsegiteak dakarzkigute gogora. Horregatik ezinbestekoa da ondorioak ateratzea, azken urteetan bizi izan duguna gogoratzea, eta erabaki egokiak hartzea. Horixe egingo dugu dokumentuaren hurrengo atalean.

3. ONDORIOAK ETA ALTERNATIBAK

2008ko krisiaren ondoren gertatu zenetik eta oraingo egoeratik ondorioak atera ditzakegu alternatibak eta hartu beharreko erabakiak planteatu ahal izateko.

Noski, osasun larrialdiari aurre egin behar zaio, eta horretarako behar adina baliabide erabili (humano, tekniko eta ekonomikoak). Baina behar-beharrezkoa da ere aterabide sozialeko agertoki bat taxutzea, zeinak eredu ekonomiko eta sozial aldaketari helduko dion. Horretarako ELAren iritziz funtsezkoak dira honako puntuak:

3.1 2008ko krisi ondoren ezarritako austeritate politikak baztertu

Argi dago 2008ko krisi ondoren ezarri ziren austeritate politikak alde batera utzi behar direla. Horretarako, besteak beste, hau da egin beharrekoa:

- Europar eremuan eta estatu bakoitzean konstituzionalizatu nahi izan den aurrekontu-markoarekin hautsi: defizit, zor publiko eta gastu-arauaren mugak kendu; EBren zaintza eta kontrol mekanismoak bertan behera utzi, zeintzuk MEDE eta antzeko programekin ezartzen diren; Konstituzioaren 135. artikulua erreforma eta hortik eratorri ziren aurrekontu- eta finantza-egonkortasun legeak indargabetu.

- Europako Banku Zentrala politika publikoen zerbitzura jarri, haren egungo printzipioak ezet-siz: bere ustezko independentzia, inflazioaren kontrola bilatzen duten helburuak (kalitatezko enplegua eta gizarte babesa lehenetsi behar dira), eta erakundeek zorpekoa edo zuzeneko maileguak hartzeko debekua.
- Krisiaren kostu ekonomikoak funtsean errenta altuenek, enpresek eta kapitalak ordaintzea. Ekidin beharra dago EBko krisia gainditzeko laguntza eskatzen duten estatuetan aplikatzen diren doikuntza estrukturalen ondorioz zerbitzu publiko, eskubide sozial eta laboral eta askatasun demokratikoen murrizketak gertatzea. Sarrera publikoak asko gehitu behar dira, eta ekarpen handiena egitea batez ere errenta altuei, enpresei eta kapitalari dagokie. Horretarako zerga-politika errotik aldatu behar da. Kapital mugimenduen gaineko zerga ere oso handia izan behar da.
- Banka publiko subiranoa, funtsezko finantza-tresna bat izango dena irteera sozial hori bideratzeko.
- Paradisu fiskalak debekatzea, haietan jarduten duten enpresen jarduera eragoztekoa, eta hainbat gobernu, hala nola Holandak edo Luxenburgok, horrelako praktikak ezabatzea.
- Zor publikoaren auditoretza, ordainaren atzerapena eta zilegi ez den zatia ezeztatzea. Esan dugun legez, krisia gertatu da EB mailan zor publikoa oso handia den une batean. Eta honen arrazoia da 2008ko krisiaren ostean bankuak erreskatatu eta kapitalaren zergak jaitzi zirela; zorraren ordainari lehentasuna eman zitzaion beharrian sozialen gainetik. Zorraren he- rri-auditoretza prozesu bat egin behar da, abiapuntutzat hartuta ordainaren atzerapena, eta erakundeek hitza emango dutelarik ez dela ordainduko ilegitimoa den zor zatia.

3.2 Biziaren sostengua eta zaintza erdigunean kokatu

Mundu mailako pandemiak nabarmendu du jendarte batean zer den oinarrizkoa eta zer ez. Eta oinarrizkoa da biziaren sostengua eta zaintza lana.

Haatik, politika publikoek lehiakortasunaren diskurtsoa lehenetsi dute, eta erakundeak enpresen interesen zerbitzura jarri dira. Zaintza bigarren mailakotzat hartu da, eremu pribatura mugatua, prekarizatua eta batik bat emakumeen esku dagoena. Beharrian sozialak asetu ordez, eremu honetan ere sustatu da enpresa pribatuen negozioa.

Ondorioak atera behar ditugu. Lehentasunak aldatu. Pertsonak eta Lurra lehenetsi behar zaizkie kapitalaren interesei. Erdigunean kokatu behar da biziaren sostengua eta zaintza, eta politika publikoak horrekin koherenteak izan behar dira. Horregatik, lan hauen balioa berrikusi behar da: merkatuko balioa biziaren sostenguari egiten dioten ekarpenaren tamainakoa izan behar da, saihestuz prekarizazioa eta segmentazio horizontal zein bertikala, klase, genero edo migrazio-es- tatusaren baitako ardatzen arabera.

Zaintza duina izango bada, honako neurriak hartu behar dira:

- Legez bermatu mendekotasun egoeran dauden guztientzako estaldura, sistema publiko, unibertsal eta doako baten bidez.
- Sistema honek kalitatezko arreta eskaini dezan ratio eta baldintza egokiak ezarri.
- Kalitatezko lan baldintzak eskaintzen dituzten enpleguak.
- Azpikontrataturako sektoreen publikazioa, hala nola nagusien egoitzak edo etxez etxeko

arreta, enplegua bermatuz.

3.3 Zerbitzu publikoei eta komuna denari balioa eman; honetarako sarrera publikoak gehitu behar dira

Urtetan publikoa gutxietsi egin da; behin eta berriz esan digute pribatuak hobeto funtzionatzen duela, ezinbestekoa zela liberalizatzea, pribatizatzea eta aurrekontu publikoak murriztea.

Egungoa bezalako uneak iritsita, egiaztatzen da benetan funtzionatzen duena, erantzuten duena, publikoa dela. Horra osasun sistema publikoa, epidemiari aurre egiteko funtsezkoa gertatzen ari dena. Egia da, aurretik esan dugun moduan, inongo osasun sistema publikorik ez zegoela prest Covid-19ari erantzun egokia emateko, baina aurrekontu publikoetan azken hamar urteetan egin-dako murrizketek, baita EAEn eta Nafarroan ere, utzi ziguten osasun sistema bat higatua, non baliabideak urriak ziren eta prekaritatea orokortuta zegoen.

Ikasgaia argi dago: Zerbitzu publikoak sendotzea ezinbestekoa da, eta horretarako administrazioen aurrekontuak hazi beharra dute, gastu-arauaren mugak hautsi, baita defizit eta zor publikoaren mugak ere.

Gogoeta hau ez da soilik osasungintzarako, ezta zaintza eta hezkuntzarako aplikagarria. Sektore estrategikoen pribatizazioak -finantzak, telekomunikazioak, energia, ikerkuntza etab.- botere publikoei kendu egin dizkiete gaur behar diren politikiei ekiteko funtsezko tresnak. Arlo publiko indartsu bat behar da sektore estrategiko guztietan. Kapital publikoaren partaidetza handiagoa gauzatzeko beharrezkoa da kontrol sindikal eta soziala.

Halaber, krisi honek erakutsi digu komuna denaren balioa: horren adibide, gure auzo eta herrietako laguntza eta zaintza sareak, zeintzuk boluntarioak harremanetan jarri dituzten eguneroko beharretarako laguntza behar duten pertsonekin. Sare komunitarioak indartzea ere urrats bat da bizia erdigunean kokatzen duen sistema baterantz aurrera egiteko.

Aurrekontu publikoek hazi egin behar dute; ondorioz, diru gehiago bildu behar da zergatan aurrekontu hori elikatzeko; baita sistema fiskal justuago bat eraiki ere. ELAk aspaldidanik erakutsi izan du Ekonomia Ituna eta Hitzarmena baliatzen direla pribilegiozko tratua emateko enpresen eta kapitalaren errentei, eta Hego Euskal herriko presio fiskala EBko apalenetakoa dela. Orain inoiz baino premia handiagoa da zerga bidez gehiago eta hobeto biltzea, proposatu izan ditugun neurrien bidez; hauen helburuak honakoak dira:

- Soldatapeko ez diren errentetan iruzur fiskalari aurre egin.
- Azken hamarkadetan errenta altu, enpresa eta kapitalei egindako zerga jaitsierei atzera eragitea eta kolektibo horien tributazioaren igoeran urrats gehiago ematea, bai modu estrukturalen, bai krisiari aurre egiteko errekareru berezien bidez.
- EAEn, zergei buruzko erabakiak Legebiltzarrean hartu.

3.4 Globalizazio eta internazionalizazioari aurre egin eta ekonomia bertokiratu. Soberania ekonomiko eta sozialean aurrera egin

2008ko finantza krisiak eta koronabirusak (baita goian aipatu ditugun errealitateak ere, lehenagotik datozenak) nabarmen utzi dute globalizazio eta internazionalizazio ekonomikoaren aldeko apustua. Mundu mailako krisiak askoz ere gogorrago jo ditu nazioarteko merkataritzaren

menpeko diren sektoreak eta beste batzuek, esaterako turismoa; ez hainbeste benetan funtsezkoak diren jarduerak edota gure lurraldeko beharrezanean erantzuten saiatzen direnak.

Gainera agerian geratu dira, esaterako industria medikuaren inguruko ekipamenduetan, euskal sistema produktiboaren gabeziak: bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren jarduera garrantzitsuak hortik kanpo daude.

Ez dakigu zenbat iraungo duen hasten ari den krisi globalak, baina litekeena da nazioarteko merkataritzan eragin larriak izatea; beraz, behar-beharrezkoa izango da gure lurraldean dauden beharrezanek asetzeko moduko produkzio sistema bat izatea. Hau da, argi geratu da egundoko garrantzia duela jarduera estrategikoak lurraldean kokatuta egoteak.

Badirudi XXI. mendean honelako kinkak sarriago gerta daitezkeela: pandemiak, finantza krisiak edo krisi ekologikoak; guztiak ere ondasun naturalak suntsitu eta klima aldaketa eragiten duen ereduaren ondorio.

Ziurrenik abagune hau mugarria izango da kontsumo ereduari dagokionez: orain arte neurri-gabeko mugikortasuna eta turismoa sustatu dira. Euskal erakundeek egin duten apustua, gure lurraldea polo turistiko bilakatzea, aldatu beharra dago, ez soilik gure hirietan dituen ondorio kaltegarriengatik (etxebizitza garestia, turistifikazioa...).

Horregatik, ezinbestean aldatu beharra dago produkzio eredia. Sistemaren eraldaketa sozial eta ekologikoari ekin eta gertuko ekonomiari lehentasuna eman behar zaio; ekonomia bertokiratu, alegia. Horrek ekarri behar du, halaber, globalizazio neoliberalaren mantra ahaztea, tankera berriko Merkataritza Itunen dinamika baztertzea eta enpresak nazioartekoratzen laguntzen duten politika publikoak bertan behera uztea.

Egungo krisiak inoiz baino gordinago ikusarazi digu Euskal Herriak ez daukala soberaniarik krisiari aurre egiteko politika publikoak erabakitzeke (lehenago aipatutako pribatizazio prozesuaren ondorio ere izan da hori). Erabakiak Madrilan edo Bruselan hartu dira; EAEko eta Nafarroako erakundeak ez dira gauza izan beren eskuduntzak behar bezala baliatzeko, ez dituzte muturre-raino eraman eta ez diote inori aurre egin euskal instituzionaltasun eta soberania ekonomikorik eraikitzeke: zerga- eta aurrekontu-politika, politika industrial eta produkzio eredia, elikadura burujabetza, lan harreman eta gizarte babeseko bertoko markoa, etab.

Elikadura burujabetza da oinarrietako bat ekonomia bertokiratzeko eta bizitza, osasuna eta ingurumena politika publikoen ardatz bilaka daitezen. Haatik, krisi honetan ezarritako neurriek zuzen-zuzenean erasan diete ustiapen txikiei, zeintzuk lurraldeari eta tokiko ekonomiari lotuta dauden. Baserritar azokak debekatu dituzte; kasu askotan baratzetan elikagaiak ekoizteko akera galarazi da; arrantzaleek osasuna jokoan jarri behar dute eta ez dute prezio duinik jasotzen; tokiko kontsumo taldeek zailtasunak izan dituzte elikagaiak kontsumitzaileei banateko... Aitzitik, elikadura kate handiak oparoaldi betean daude.

Krisi honek, eta hartutako neurri zorrotzek, erakusten dute borondate politikoa dagoenean jardun egiten dela. Gogoratu behar da, egunotan argi eta garbi ikusten ari garen bezala, gizakiaren jardura dela klima aldaketaren eragilea, eta horrek arriskuan jartzen duela planetaren etorkizuna. Premiazkoagoa da, ahal bada, produkzio-, banaketa- eta kontsumo-eredu sozial, ekologiko, feminista eta demokratiko baterantz trantsizio ordenatua egitea. Paradigma aldaketa aukera ona da kalitatezko enplegua sortzeko, hainbat bidetatik:

- Bizitza sostengatzeko sektoreetan lanpostuak gehitu (osasungintza, hezkuntza, zaintza, garbitasuna...).
- Ikuspuntu ekologiko eta sozialetik beharrezko diren sektoreen garapen handia (ELAk zenba-

tetsi zuen hauetan 110.000tik gora lanpostu sor daitezkeela).

- Asteko lanaldia 35 ordura jaitsi; honek enplegua sortzea dakar.
- Soldata arrakala amaiarazi.
- Etxeko lanen berrantolaketa, erantzukidetasunez egin daitezen.
- Ezkutuko ekonomian diharduten langile guztien erregularizazioa.
- Etxeko langile guztientzako eskubide guztiak aitortu.

Enpresentzako laguntzak halaberrez mugatuak eta baldintzatuak izan behar dira, esaterako enplegu guztia mantentzea (zuzeneko eta zeharkakoa), negoziazio kolektiboa errespetatzea, mozkinik ez izatea, soldata arrakala gainditzea edota klausula sozial (adibidez, paradisu fiskal-etan ez aritzea) eta ingurumenekoak betetzea. Eta sindikatuekin informazio sistemak eratu behar dira laguntza horien jarraipena egiteko (Covid-19arekin lotutakoak eta, oro har, gastu publiko hau nola gauzatzen den, zein baldintzapean).

3.5 Pertsonen eskubideak lehenetsi, ez kapitalarenak

Krisiari erantzun soziala emango bazaio baliabide publikoak pertsonen zerbitzura jarri behar dira, batik bat kolektiborik kalteberenen zerbitzura; ez da gertatu behar aurrekontuak puztea enpresei funts publiko izugarriak transferitzen zaizkielako (honen adibide dira bankuen erreskatea edo baliabide gehienak enpresei laguntzeko planetara edo abaletara bideratzea, pertsonentzako laguntzak oso urriak diren bitartean).

Bestalde, pertsona guztientzako eskubideak aintzat hartzeko egoera administratibo irregularrean dauden migranteen egoera erregularizatu behar da.

ELAK hiru oinarri izango dituen txoke-plan sozial bat galdegiten du:

- Pertsona guztiei bizimodu duina izateko gizarte prestazioak bermatu. Laster ezarri beharreko neurriak dira, adibidez, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata adinako gutxieneko dirusarrerera bermatuak; gizarte-prestazioen hobekuntza nabarmena (DSBE eta GLL EAEn eta EB Nafarroan), edota hilean 1.080 euroko gutxieneko pentsioa (hala eskatzen du pentsiodunen mugimenduak eta aldarrikatu genuen urtarrilaren 30eko greba orokorrean).
- Pertsona guztiei etxebizitza izateko aukera bermatu (pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurkako HLEan hori eskatu genuen), baita oinarritzko eskubideak ere: elikadura eta argindar, ur eta gas hornikuntza. Horretarako debekatu egin behar da hornikuntza etetea eta ohiko bizilekutik kanporatzea, arrazoi ekonomikoen ondorioz ordaindu ezin den kasuetan.
- Behar-beharrezko produktu eta zerbitzuen gehienezko prezioak arautu, produktu sanitarioenak barne (izan ere, koronabirusaren pandemia zela eta ikusi baita era guztietako espekulazioetarako erabili direla, etekina herritarren osasun eskubideari lehenetsiz).

3.6 Lanari bere duintasuna aitortu, batik bat sektore prekarizatu eta feminizatuetan

Argi geratu da koronabirusa borrokatzeko ezinbestekoa dela lana, ez soilik osasungintza publikoko profesionalena; beste sektore batzuk ere funtsezkoak dira: zahar-etxeak, etxez etxeko laguntza, etxeko langileak, garbitzaileak, elikagai dendetan lan egiten duten emakumeak... Bestal-

de, hor dira ere gehienbat emakumeek ordainik gabe egiten dituzten lan erreproduktibo guztiak.

Zaintza eta etxeko lanak ezin dira gelditu. Ez da kasualitatea bizia mantentzeko oinarrizkoak diren sektoreak feminizatuta eta prekarizatuta egotea. Honen erroan dago gehienbat emakumeen esku daudela (kasu askotan migranteak).

Azken urteetan ezarritako lan eta negoziazio kolektiboko erreforma anitzek enpresen boterea areagotu eta prekaritatea hedatu dute, hainbat modutan. Haien xedea izan baita enpresen eta kapitalaren interesak lehenestea.

Arlo honetan erabateko aldaketa egin behar da, lanak duen balioa aitortu, batez ere aipatutako sektore horietan egiten den lana, gehienez gutxietsi egin baita. Lan baldintza duinak ezarri eta prekaritatea amaiarazi behar da.

Eztabaida publikotik atera nahi izan da aberastasunaren banaketari buruzko norgehiagoka. Alabaina, eztabaida hau berriro piztu da. Nork ordainduko du krisiaren kostua? Soldata jaitzierak areagotu nahi ote dituzte berriz? Atzera eragin behar zaio azken hamarraldietako prozesuari: ekonomian soldata-errentek zuten pisua murriztu eta enpresa zein kapitalaren errentak loditu dira.

Horretarako egin beharrekoak:

- Urte askotan ezarritako erreformetan egin diren lan eskubide murrizketak bertan behera utzi eta negoziazio kolektiboaren balioa berreskuratu; Hego Euskal Herriko langileei bermatugure lan-hitzarmenak bertan negoziatzeko eskubidea.
- Eros-ahalmenaren taxuzko hobekuntza, azken urteetako galera konpentsatzeko.

3.7 Mobilizazio soziala eta soberania sozialerako alternatibak bultzatu

Dokumentu honetan marraztutako ildoan aurrera egitekotan goitik behera aldatu behar dira maila instituzional guztietan aplikatzen ari diren politikak; horretarako mobilizazio soziala ezinbestekoa da. Botere sindikal eta soziala eraiki behar da austeritate politikei aurre egiteko, Euskal Herriko, espainiar Estatuko eta Europako erakunde guztiek ezarritako politiken inertzia aldarazteko.

Krisialdi larrietan botere politiko eta ekonomikoaren arteko aliantzak indar sozialak neutralizatu nahi ditu, hauek doikuntza politikei babes eman diezaieten. Horretarako gizarte-itun zabalaren beharra erabiltzen dute ikur gisa (esaterako, Moncloako Itunak edota elkarrizketa sozialaren etengabeko ideia, zeinaren adierazpen nagusia Nafarroan ezagutu dugun). Itun horiek, elkarrizketa sozial horrek, langile klasearen interesei ez diete mesederik egiten.

Honez gero edukiaz / mamiaz hitz egin behar da, ez edukitzaileaz. Erakunde sindikal eta sozialek, baita ezkerreko indar politikoek ere, lehenasuna eman behar diote honi, eta debatea gai hauetan polarizatu. ELAk esan izan duenez, hauek dira egin beharrekoak:

- Egoera eta alternatibak azaldu.
- Aliantza sindikal eta sozial bat eraiki.
- Indar politikoak interpelatu, batik bat ezkerrekoak, neurriok aurrera eraman ditzaten, hartara aldarri sindikal eta sozialaren isla izan daitezen.
- Mobilizazio soziala bultzatu.

Honekin batera garatu eta parte hartu beharreko praktika eta alternatibak indartu behar ditugu, zeintzuk urrats erabaki eta eragingarriak izango diren soberaniarako bidean, hainbat arlotan: elikadura eta energia burujabetza, finantza etikoak, tokiko monetak, etab. Borroka eta erakunde anitzek osatutako unibertso bat, helburutzat hartuta eraldatze sozial, ekologiko, feminista, demokratiko eta kulturala.